

Euskara sustatzeko eta euskalgintza babesteko Akordio Soziopolitiko

Acuerdo Sociopolítico para la promoción
del euskara y la defensa de los organismos
sociales del euskara

2004ko azaroa



EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN
KONTSEILUA

Sarrera	3
1.- Normalizazio prozesua bizkortzeko neurriak	7
1.1.- Indarrean dagoen legedia aztertu eta egokitu	7
1.2.- Hizkuntz politikari dagokion lekua ematea instituzioetan	7
1.3.- Administrazioa eta haren barne jarduna euskalduntzeko neurri eraginkorrak hartu	8
1.4.- Hezkuntza eta unibertsitatea euskaldundu.....	10
1.5.- Helduen euskalduntze eta alfabetatzea indarberitu.....	11
1.6.- Lan munduaren euskalduntzea bizkortzeko egitasmoa	12
1.7.- Komunikabideak eta kultur jarduna euskalduntzeko diskriminazio positiborako neurriak ezarri.....	14
1.8.- Udal ordenantzen bidetik udalerrriak euskalduntzeko planak abiatu	16
1.9.- Euskaraz sortuak edo euskal kulturaren parte diren produktuen aldeko marketing kanpaina	16
1.10.- Diru laguntza politika maila guztietan (Erkidegoetan, Aldundietan eta Toki Administrazioan) aztertu eta diru baliabideak handitu.....	17
1.11.- Diru laguntzazko lerro bereziak ireki proiektu berriei atxikirik.....	17
1.12.- Azpiegitura publikoak sortu euskararen eta euskal kulturaren ezartze eta garatze kostuak murrizteko	18
1.13.- Gizarte eragile eta politikoen barne euskalduntzea.....	19
2.- Euskalgintza babesteko neurriak.....	20
2.1.- Erasoek eragindako kalteak arintzeko neurriak hartu.....	20
2.2.- Babes ekintzetarako bitarteko ekonomikoak ezarri.....	20
2.3.- Gorabehera politikoetatik babesteko eta etorkizunean Euskalgintzaren lana zaintzeko	21
2.4.- Euskal instituzioen, alderdi politikoaren eta gizarte eragileen eskutik Euskalgintzaren egoera nazioartera zabaltzeko plangintza	22
2.5.- Onura publikoko aitortza eskatzen duen elkarteei izendapena lehenbailehen ematea.....	22
2.6.- Euskalgintzaren aintzatespen publikoa instituzio, alderdi eta gizarte eragileen aldetik	22
2.7.- Euskal Kulturaren industriaren azterketa ekonomikoa.....	23
2.8.- Nazioarteko batzorde ikuskatzaile baten sorrera kalteak neurtzeko eta balorazioak egiteko	24
3.- Xedapen gehigarriak.....	25
Akordioaren sinatzaileak	26

Introducción.....	3
1.- Medidas para acelerar el proceso de normalización.....	7
1.1.- Revisión y readaptación de la legislación vigente	7
1.2.-Asignación del lugar que corresponde a la política lingüística en las instituciones	7
1.3.- Toma de medidas para la euskaldunización de la administración y de su actividad interna	8
1.4.- Euskaldunizar la educación y en particular la universidad	10
1.5.- Revitalizar la euskaldunización y la alfabetización de adultos	11
1.6.- Activar la euskaldunización del mundo laboral	12
1.7.- Fijar una cuota para euskaldunizar los medios de comunicación y la actividad cultural.....	14
1.8.- Puesta en marcha de planes de euskaldunización municipales por medio de ordenanzas.....	16
1.9.- Campaña en favor de los productos en euskara.....	16
1.10.- Revisar la política de subvenciones a todos los niveles (Autonomías, Diputaciones y Administraciones Locales) e incrementar los recursos económicos	17
1.11.- Habilitar líneas de subvención en relación con nuevos proyectos.....	17
1.12.- Crear infraestructuras públicas para disminuir los costes de implantación y desarrollo de la lengua y la cultura vascas.....	18
1.13.- Euskaldunización interna de los agentes sociales y políticos.....	19
2.- Medidas para proteger el mundo del euskara.....	20
2.1.- Medidas para paliar los perjuicios causados por las agresiones.....	20
2.2.- Recursos económicos para acciones de defensa.....	20
2.3.- Para proteger de los avatares políticos y asegurar el trabajo de los organismos sociales del euskara en el futuro	21
2.4.- Elaborar un plan para difundir en el ámbito internacional la situación del mundo del euskara de la mano de las instituciones, los partidos políticos y agentes sociales vascos	22
2.5.- Rápida concesión del reconocimiento del carácter de interés público a las entidades que lo soliciten	22
2.6.- Reconocimiento público del mundo del euskara de parte de las instituciones, partidos y agentes sociales	22
2.7.- Examen económico de la industria cultural vasca	23
2.8.- Creación de una comisión supervisora internacional para cuantificar los daños y hacer las valoraciones pertinentes.....	24
3.- Disposiciones adicionales	25
Firmantes del acuerdo	26

Sarrera

Gure hizkuntzaren normalizazio prozesuak une erabakigarriak bizi ditu azken bolada honetan. Alde batetik, prozesuaren adierazle diren faktore batzuek moteltze kezkarria erakusten dute, eta bestetik, euskalgintzak pairatu duen jazarpenak kezka bizia sortu du herritarrengan. Euskararen normalizazio prozesuaren eragile batzuek pairatu dituzten zuzeneko erasoek hizkuntzaren normalizazioaren aldeko mugimendu osoari eragiten diote zeharka eta erasotze horren helburua, prozesua bera geratzea da. Hala ere, egoera hau gainditu egin behar da, zeren gaur egungo baldintzek eragotzi egiten baitute berez zaila, luzea baina ezinbestekoa den euskararen normalizazioaren helburua lortzea. Horregatik, Akordio Soziopolitiko zabala behar da normalizazioa areagotzeko eta euskalgintza babesteko.

Euskalgintzak euskararen alde egiten duen lanaren funtsezko zutabea da autonomia egon daitezkeen interes politiko eta sozialen aurrean; beraz, akordio hau parte hartzaile ororen autonomia hori errespetatuz egingo da.

Introducción

El proceso de normalización de nuestra lengua vive momentos decisivos en los últimos tiempos. Por una parte, algunos factores que constituyen indicadores del proceso muestran una desaceleración preocupante, y por la otra, la persecución que ha sufrido el mundo del euskara suscita una viva inquietud en la ciudadanía. Las agresiones directas que han sufrido algunos agentes afectan de manera indirecta a todo el movimiento a favor de la normalización lingüística y pretenden detener este proceso. Sin embargo, se trata de una situación que es preciso superar, ya que las actuales circunstancias impiden el logro del objetivo de la normalización del euskara ya de por sí tarea ardua, prolongada pero imprescindible. Por lo tanto, es necesario un amplio Acuerdo Sociopolítico para impulsar la normalización y la defensa de los organismos sociales del euskara.

El pilar fundamental que sustenta el trabajo de los organismos sociales en pro del euskara es su autonomía frente a los posibles intereses políticos o sociales; por lo tanto, el presente acuerdo se realizará respetando la autonomía de todos los participantes.

Bestalde, Euskal Herriak bizi duen gatazka politikoa gainditzeak lagunduko du normalizazioan aurrerapausoak ematen, gaur egungo baldintzetan benetan zail egiten baita prozesu hori behar den moduan garatzea.

Euskararen normalizazioaren aurkako erasoak ez da kanpaina puntuala, ez da koiunturala, ezta taktiko hutsa ere. Estatu mailako eraso estrategikoa da eta zeregin horretan tresna juridikoak, politikoak, judizialak, ekonomikoak eta mediatikoak erabiltzen dira. Gainera, aukera dagoen tokietan, politika inboluzionistak aplikatzen dira, corpus legalak aldatuz eta herritarren euskararekiko lotura ahultzea bilatuz, normalizazioaren aldeko babes soziala murriztu nahirik. Ondorioz, Akordio Soziopolitiko honen sinatzaileen ekimena, anitza, gizarte inplikatu duena, iraunkorra eta sendoa izango da, gizarte eragileak, instituzionalak eta politikoak euskalgintzarekin batera, denak bat eginda, normalizazioan aurrerapauso nabarmenak emateko aukera eskainiko duena. Elkarrekin euskararen normalizazioa burura eramateko baldintza egokiak sortu eta urratsak eman behar ditugu.

Bestalde, nahiko genuke Martxoaren 14ko

Por otra parte, la superación de la situación de enfrentamiento que vive Euskal Herria facilitará el avance en el proceso de normalización, dado que en las condiciones actuales resulta muy difícil el adecuado desarrollo de este proceso.

La agresión que sufre la normalización del euskara no es una campaña puntual, coyuntural, ni meramente táctica. Se trata de una agresión estratégica de dimensión estatal y en ella se utilizan medios jurídicos, políticos, judiciales, económicos y mediáticos. Además, allí donde existe la posibilidad, se aplican políticas involucionistas, cambiando el corpus legal y buscando debilitar la adhesión de la ciudadanía al euskara, tratando de reducir el apoyo social a la normalización. En consecuencia, la iniciativa de los que suscribimos el presente Acuerdo Sociopolítico será plural, implicará a la sociedad, será duradera y firme, y dará la oportunidad de avanzar por la vía de la normalización, de manera conjunta, tanto los agentes sociales como los institucionales y los políticos, junto con los organismos sociales del euskara. Juntos debemos crear las condiciones adecuadas, y dar los pasos para llevar a cabo la normalización del euskara.

Por otra parte, quisiéramos que el cambio

<p>hauteskundeen ondorioz gertatutako aldaketa politikoak erasoan amaiera ekarri ahal izatea. Hala ere, euskararen normalizazioak behar duen bultzada aldaketa politikoetatik at garatu beharreko ildo da.</p>	<p>político fruto de las elecciones del 14 de marzo pueda traer el fin de los ataques contra el euskara. No obstante, la normalización del euskara debe desarrollarse al margen de los cambios políticos coyunturales.</p>
<p>Horretarako aukera bikaina eskaintzen du Akordio Soziopolitikoak bi zutabe nagusi izango ditu.</p>	<p>El Acuerdo Sociopolítico que brinda una excelente oportunidad para ello, constará de dos pilares básicos.</p>
<p>Euskararen normalizazioak bultzada berri eta biziagoa izan dezan beharrezkoak diren ekimen politiko, instituzional eta sozialak indarrean jartzeko konpromisoa hartzen dugu; lehenik, gaur egungo proiektu eta programak indarberrituz eta hobetuz; bigarrenik, ofizialtasunaren garapena eta hizkuntz eskubideen bermea lurralde osoan ekarriko duten neurri legalak bultzatuz; hirugarrenik, normalizaziorako estrategikoak diren proiektu berriak abian jarritz; laugarrenik, geure erakundeetan barne euskalduntze politika eraginkorrak sustatuz; eta azkenik, erabakimenik ez dugun instituzio eta erakundeetan euskararen alde aipaturiko neurriak har daitezzen eraginez, eta horretarako egitasmoak bultzatuz.</p>	<p>Para que la normalización del Euskara sea objeto de un nuevo impulso más intenso adoptamos el compromiso de poner en vigor iniciativas políticas, institucionales y sociales; en primer lugar, revitalizando y mejorando los proyectos y programas actuales; en segundo lugar, impulsando medidas legales que garantizarán en la totalidad del territorio los derechos lingüísticos y el desarrollo de la oficialidad; en tercer lugar, iniciando nuevos proyectos que sean estratégicos para la normalización; en cuarto lugar, promoviendo políticas activas de euskaldunización en el seno de nuestras organizaciones y, por último, incidiendo en las instituciones en las que se carezca de capacidad de decisión para adoptar medidas en favor del euskara, y promoviendo proyectos a tal efecto.</p>
<p>Euskalgintza osatzen duten elkarte eta erakunde bideragarritasuna eta iraunkortasuna bermatzeko behar diren</p>	<p>Habilitaremos los medios administrativos, jurídicos y económicos necesarios para garantizar la viabilidad y la pervivencia de</p>

bitarteko administratibo, juridiko eta ekonomikoak ezarriko ditugu, horien jarduna baldintza politiko, sozial eta ekonomiko egokitan burutu dadin eta jazarpenak sortzen dituen kalteak indargabetuz, haren jarraipena bera baldintzatzeko. Ekinbide politikoinstituzionala eta gizartearen dinamika modu egokian artikulatzeko konpromisoa hartzen dugu.	las asociaciones y organismos que integran el mundo del euskara, para que su actividad se desarrolle en condiciones políticas, sociales y económicas adecuadas, amortiguando los perjuicios que originan estas agresiones, a fin de condicionar su continuación. Adoptamos el compromiso de articular de manera adecuada la acción político-institucional y la dinámica social.
---	---



1.- Normalizazio prozesua bizkortzeko neurriak

1.1.- Indarrean dagoen legedia aztertu eta egokitu

Gaur egun Euskal Herrian indarrean dauden legeek 15 eta 20 urte baino gehiago dute, eta une aproposa da horiek aztertu eta hobetzeko.

a.- Euskara normalizatzeko legeetan haren berezko eta lehentasunezko izaera jasotzea, eta euskararen lurralde osoan gure hizkuntzaren estatus ofiziala bermatzea.

***Berezko** hizkuntzak esan nahi du lurralde horretan historian zehar ezarritako komunitatearen mintzaira dela eta **lehentasunezko** kontzeptuak adierazi nahi du haren hizkuntza gutxitu egoerak diskriminazio positiboa behar duela normalizatuko bada.*

1.2.- Hizkuntz politikari dagokion lekua esleitu instituzioetan

Hizkuntz politikaren izaera orokorra kontuan hartzen bada, ikusten da ez

1.- Medidas para acelerar el proceso de normalización

1.1.- Revisión y readaptación de la legislación vigente

Las leyes actualmente en vigor en Euskal Herria cuentan con más de 15 y 20 años, y estamos en un momento adecuado para su revisión y mejora.

a.- Recoger en las leyes para la normalización del euskara el carácter de lengua propia y prioritaria, además de garantizar en todo el territorio del euskara el estatus oficial de nuestra lengua.

*Lengua **propia** quiere decir que es la lengua de la comunidad que históricamente habita el territorio y el concepto **prioritaria** quiere indicar que dada su condición de lengua minorizada necesita de la discriminación positiva para su normalización*

1.2.- Asignación del lugar que corresponde a la política lingüística en las instituciones

Si se toma en consideración el carácter general de la política lingüística, se ve que

dagokiola sail edo alor bakar bati, zeren instituzio bakoitzaren sail eta alor guztietan eragiten baitu. Beraz, hizkuntz politika osoa ezartzeko ezinbestekoa da, instituzioetako sail eta alor guztiek, dagokien arduratik ondorioztatzen den hizkuntz politika abian jartzea.

a.- Hizkuntz politika sail eta alor guztien artean egin behar da. Era berean, gobernuetatik udaletarainoko hizkuntz politika izateko beharrezkoak diren neurriak hartuko dira.

1.3.- Administrazioa eta haren barne jarduna euskalduntzeko neurri eraginkorrak

Administrazioak, herritarren zerbitzuan ari den neurrian, euskara erabiltzeko eskubidea maila guztietan bermatu behar du, bai bezeroarekiko, hau da, herritarrarekiko arretari dagokionean, baita barne funtzionamenduari dagokionean ere, lana euskaraz egin ahal izatea babestuz.

a.- Langileen kontratazio berri guztietan elebiduna izatearen baldintza jartzea.

no corresponde únicamente a un único departamento o ámbito, ya que incide en todos los correspondientes a cada institución. Por tanto, para aplicar una política lingüística en su totalidad resulta imprescindible que todos los departamentos y ámbitos de las instituciones pongan en marcha la política lingüística que se deriva de la competencia correspondiente.

a.- Hay que llevar a cabo la política lingüística entre todos los departamentos y ámbitos. Asimismo, se adoptarán las medidas necesarias para implementar una política lingüística desde los gobiernos hasta los municipios.

1.3.- Medidas para la euskaldunización de la administración y de su actividad interna

En la medida en que la administración está al servicio de la ciudadanía, debe garantizar a todos los niveles el derecho a utilizar el euskara, tanto por lo que se refiere a la atención del ciudadano y de la ciudadana, como en lo que se refiere al funcionamiento interno, garantizando la posibilidad de trabajar en euskara.

a.- Establecer como requisito el carácter bilingüe en todas las nuevas contrataciones

Neurri hau aplikatzen hasteko denboran zehar epe zehatzak izango dituen plangintza ezarriko da egoera soziolinguistiko eta legalaren arabera epe bat baino gehiago izango dituen.

b.- Administrazio bakoitzaren euskalduntze plan eraginkorrak eta epedunak eta horien zerbitzuetan (Ertzaintza, Foruzaingoa, Osakidetza, Osasunbidea, Iparraldeko osasun zerbitzuak, Udaltzaingoak, Estatuetakoa administrazioak ...) abian jartzea edo abian daudenak bizkortzea. Langileek ikasteko erabiliko duten denbora lan jardunaren barnekoa izango da.

c.- Administrazioek ematen dituzten diru laguntza lerro guztietan, norbanakoei zuzendutakoak salbu, ekonomian, gizarte mugimenduetan, kulturen, nekazaritzan eta abarretan euskara balioestea, euskarazko ekoizpena bereziki sarituz.

d.- Zerbitzu publikoak ematen dituzten enpresetan, Administrazioek langileak euskalduntzeko xedez onartzen dituzten plangintzak burutuko dira.

de los trabajadores. Para la aplicación de esta medida se concretará una planificación que tendrá objetivos y plazos concretos definidos con respecto a la situación legal y sociolingüística.

b.- Poner en marcha planes de euskaldunización eficaces, marcando plazos en cada Administración, así como en sus servicios (Ertzaintza, Policía Foral, Osakidetza, Osasunbidea, servicios sanitarios de Iparralde, Policías municipales, Administraciones estatales...) e impulsar los ya existentes. El tiempo utilizado por los trabajadores y trabajadoras para el estudio se incluirá en la jornada laboral.

c.- Valorar el euskara en todas las líneas de subvenciones que conceden las Administraciones, excepto las dirigidas directamente a los ciudadanos y ciudadanas en economía, movimientos sociales, cultura, agricultura, etc., incentivando especialmente la producción en euskara.

d.- En las empresas que ofertan servicios públicos se llevarán a cabo los planes que asuman las Administraciones con el objetivo de euskaldunizar a los trabajadores y trabajadoras.

1.4.- Hezkuntza eta Unibertsitatea euskaldundu

Euskal Herriko herritarrok badugu euskara ezagutzeko eskubidea eta eskola tresna aparta da hori bermatzeko. Hala ere, gaur egun ez da bere helburua zeharo betetzen ari ez baititu haur denak euskalduntzen eta leku askotan euskaraz ikasteko aukera ere ukatua baita.

a.- Gaur egun euskalduntzea lortzen ez duten sistemak gaindituz, eskolak belaunaldi berriak euskaldundu behar ditu.

b.- Nafarroan eta Iparraldean dugun egoera desagokia gainditu beharra dago gurasoek, irakasleek eta ikasleek egiten duten ahalegina arinduz eta leku gehiagotara iristeko aukera bermatuz. Horretarako, diru inbertsioak egin behar dira. Nafarroaren kasuan ezinbestekoa da gaur egungo zonifikazioa gainditzea.

c.- Euskal Herri osoarentzat euskaraz lan egin eta irakatsiko duen unibertsitatea behar dugu. Nafarroan eta Iparraldean arlo honetan ditugun gabeziak gainditzeko eskaintza egin behar da eta gaur egun lanean ari diren unibertsitate guztiak

1.4.- Euskaldunizar la Educación y la Universidad

La ciudadanía de Euskal Herria tiene el derecho de conocer el euskara y la escuela es un instrumento imprescindible para garantizarlo. No obstante, en la actualidad no cumple totalmente con su objetivo, ya que no euskalduniza a todos los niños y niñas y en muchos lugares se niega incluso la posibilidad de estudiar en euskara.

a.- El sistema escolar euskaldunizará a las nuevas generaciones superando los sistemas actualmente vigentes que no logran euskaldunizar.

b.- En Navarra e Iparralde es preciso superar la inadecuada situación existente aliviando el esfuerzo de los padres y madres, profesorado y alumnado y garantizando la oportunidad de llegar a nuevos lugares. Para ello hay que realizar inversiones económicas. En el caso de Navarra es imprescindible superar la zonificación existente hoy en día.

c.- Necesitamos una universidad que trabaje y enseñe en euskara para toda Euskal Herria. En Navarra e Iparralde hay que hacer una oferta que subsane las carencias existentes en este ámbito y todas las actuales universidades deben

eskaintza euskaldundu behar dute gutxienez, aukera berdintasuna ziurtatu arte.

d.- Lanbide Heziketaren eskaintza zeharo euskalduntzeko neurriak hartuko dira gaur egun legeak ahalbidetzen duen tokietan eta aurreranzko urrats nabarmenak bultzatuko dira oztopoak dauden beste lurraldeetan.

e.- Etorkinen seme-alabek integrazioa laguntzeko, aukerak eta erraztasunak bermatu behar dira orientazio eta informazio egokiaren bitartez. Horrez gain, hezkuntza sistemek ahalegin handi bat egin behar dute bitarteko materialetan eta irakasleen prestakuntzan etorkinen harrera eta integrazioa modu eraginkorrean egiteko.

1.5.- Helduen euskalduntzea eta alfabetatzea indarberritu

Helduen euskalduntze-alfabetatzearen izaera estrategikoa onartu beharra dago. Izan ere, eskola bitartez lortzen diren euskaldunek gure hizkuntza benetan erabiltzea bada helduen euskalduntzea indarberritu beharra dago.

euskaldunizar su oferta, hasta lograr la igualdad de oportunidades.

d.- Se tomarán medidas para euskaldunizar por completo la oferta en Formación Profesional en aquellos territorios en los que la legislación vigente lo permita, y en los territorios en los se aprecien obstáculos, se impulsarán medidas significativas para su avance.

e.- Para facilitar la integración de los hijos y las hijas de inmigrantes se garantizarán facilidades y oportunidades a través de una información y orientación adecuadas. El sistema educativo hará un importante esfuerzo en lo concerniente a los medios materiales y la preparación del profesorado para recibir e integrar manera efectiva los y las emigrantes.

1.5.- Revitalizar la euskaldunización y la alfabetización de adultos

Hay que aceptar el carácter estratégico de la euskaldunización y alfabetización de adultos. En efecto, si se desea realmente que los vascohablantes logrados a través de la escuela utilicen el idioma, es preciso revitalizar la euskaldunización de adultos.

a.- Diru laguntzak nabarmen handitu behar dira eperik laburrenean doakotasuna ziurtatu arte.

b.- Euskara ikasteko motibazioa sustatzeko ekimenak abian jarri behar dira.

c.- Gaur egun ikasteko aukerarik ez dagoen lekuetan eskaintza egingo dela ziurtatu behar da ikasteko aukera hori erabat bermatuz.

d.- Helduen euskalduntze eta alfabetatzearen baldintzak hobetu behar dira egonkortasuna eta iraunkortasuna bermatzeko, hezkuntzakoekin parekatuz.

e.- Etorkin helduen euskalduntzea bermatzeko programa bereziak abiatuko dira iristen diren une beretik ikasteko aukera eskainiz.

1.6.- Lan mundua euskalduntzea bizkortzeko egitasmoa

Orain arteko normalizazio bidean dugun alderik ahulena lan munduaren euskalduntzea da ziurrenik. Izan ere, arlo horretan gehiena egiteko dago eta askoz

a.- Incrementar notablemente las ayudas para conseguir la gratuidad en el plazo más breve posible.

b.- Poner en marcha iniciativas para intensificar la motivación del aprendizaje del euskara.

c.- Asegurar la oferta en los lugares en los que actualmente no es posible aprender, garantizando totalmente la oportunidad para ello.

d.- Mejorar las condiciones del sector de la euskaldunización y de la alfabetización de adultos, garantizando su estabilidad y continuidad, equiparándolas a las del sistema educativo.

e.- Con el fin de garantizar la euskaldunización de los y las emigrantes adultos se les ofrecerá la posibilidad de aprender euskara desde el momento mismo de su llegada.

1.6.- Activar la euskaldunización del mundo laboral

En el camino a la normalización, el aspecto más débil es el correspondiente al mundo laboral. En efecto, en este ámbito queda mucho por hacer y es preciso incrementar



gehiago inbertitu behar da. Era berean, lan munduan normalizazioaren bideari lehenetsunez heltzea garrantzi handikoa da norbanakoen bizitzaren zati handi bat hartzen duelako eta, kasu askotan, gure ohiko jardunaren erdigunea delako.

a.- Lan munduaren euskalduntzea bizkortzeko helburuarekin Euskal Herri mailako fundazio bat sortuko da bertan sindikatuak, patronala, kooperatiben mundua, instituzioak eta euskalgintza bilduko dituena. Diru baliabide egokiz hornituko da eta lan munduaren euskalduntzeari begira jardungo du normalizazio planak bultzatuz, bidea errazteko neurriak proposatuz eta prozesuaren balantzea eginez. Fundazioaren zeregin zehatzak, funtzionatzeko era eta parte hartzaileen arteko oreka inplementazio fasean aztertuko dira.

b.- Publizitatea eta etiketak euskalduntzeko legea. Helburua da Euskal Herrian saltzen diren produktuek informazioa euskaraz ere ematea. Neurri hori aplikatzen hasteko denboran zehar epe zehatzak izango dituen plangintza ezarriko dugu egoera soziolinguistiko eta legalaren arabera epe bat baino gehiago izango dituena.

las inversiones. Asimismo, será prioritario abordar la normalización en el ámbito laboral, ya que implica una gran parte del tiempo del individuo y porque constituye, en muchos casos, el centro de nuestra actividad habitual.

a.- Crear una fundación cuyo ámbito de trabajo sea el conjunto de Euskal Herria con el objeto de acelerar la euskaldunización del ámbito laboral que integre a los sindicatos, la patronal, el mundo cooperativo, las instituciones y el mundo del euskara. Se dotará de recursos suficientes y trabajará en pro de la euskaldunización del mundo laboral impulsando planes de normalización, proponiendo medidas para facilitar el camino y realizando el balance del proceso. Las tareas concretas, la forma de funcionamiento y el equilibrio entre participantes se analizarán en la fase de implementación.

b.- Ley para la euskaldunización de la publicidad y el etiquetado. Su objetivo será ofrecer también en euskara la información de los productos que se venden en Euskal Herria. Para la aplicación de esta medida se concretará una planificación que tendrá objetivos y plazos concretos definidos con respecto a la situación sociolingüística y legal.

c.- Administrazioek, zerbitzu publikoak emateko kontratatzen edo homologatzen dituzten enpresei, ahozko eta idatzizko zerbitzua euskaraz ematea eskatuko diete.

Neurri hau aplikatzen hasteko denboran zehar epe zehatzak izango dituen plangintza ezarriko dugu egoera soziolinguistiko eta legalaren arabera epe bat baino gehiago izango dituen.

1.7.- Komunikabideak eta kultur jarduna euskalduntzeko diskriminazio positiboko neurriak ezarri

Euskara eta euskal kultura guztiz bazterturik ageri zaizkigu komunikabide eta kultur eskaintza gehienetan. Horri gehitu behar diogu globalizazioaren fenomenoak hizkuntz eta kultura gutxituei eragiten dizkien trabak, berezko garapena ziurtatzeko unean.

a.- Euskal Herrian egoitza duten edo baimen administratiboa behar duten hedabideei euskararen erabilpena bultzatzeko diskriminazio positiboko neurriak arau bidez ezarriko zaizkie, baita zine areto eta film banatzaileei ere. Ezagutza izango da abiapuntua kuotaren

c.- Las Administraciones solicitarán un servicio, tanto oral como escrito, en euskara a las empresas que contraten u homologuen para dar servicios públicos. Para la aplicación de esta medida se concretará una planificación que tendrá objetivos y plazos concretos definidos con respecto a la situación sociolingüística y legal.

1.7.- Fijar medidas de discriminación positiva para euskaldunizar los medios de comunicación y la actividad cultural

La lengua y la cultura vascas aparecen totalmente marginadas en la mayoría de los medios de comunicación y ofertas culturales. A ello hay que añadir los obstáculos que crea el fenómeno de la globalización a las lenguas y culturas minorizadas a la hora de asegurar su desarrollo natural.

a.-Exigir por ley a los medios de difusión con sede en Euskal Herria o que necesiten autorización administrativa medidas de discriminación positiva tendente a la utilización, incluyendo salas cinematográficas y distribuidores de películas. El conocimiento de la lengua

neurria ezartzeko momentuan eta horrek aurrera egiten duen neurrian aldatuz joan beharko da.

Neurri hau aplikatzeko denboran zehar epe zehatzak izango dituen plangintza burutuko da egoera soziolinguistiko eta legalaren arabera.

b.- Diru laguntzak sortzaileen eta produkzioaren eremuetan: Azpiegiturak berritu eta indartzeko, euskal produkzioak egiten dituztenei abantaila fiskalak aitortuko zaizkie, etekinen berrinbertsioa sustatuko zaie, euskaraz diharduten eskualde komunikabideei seguritate juridikoa eman eta teknologiaz jabetzeko laguntzak segurtatuko zaizkie. Sormena erraztu, eragin edo biderkatzen duten politikak behar ditugu.

c.- Inbertsio publikoa produkzio eta kontsumitzaile eremuetan: Ikus-entzunezkoen arloko eskolak sustatuko dira, produkzio areto publikoak eraikiko dira, teknologia transferentzia bizkorrak ziurtatu eta Interneten bidezko produkzioa bultzatuko da.

será el punto de partida para establecer la cuota, adecuándola a medida que avanza su conocimiento.

Para la aplicación de esta medida se realizará una planificación que tendrá objetivos y plazos concretos definidos con respecto a la situación sociolingüística y legal.

b.- Subvenciones a los creadores y productores: Para la renovación y consolidación de las infraestructuras, se concederán ventajas fiscales a quienes realicen producciones en euskara, promoviendo la reinversión de los beneficios, dando seguridad jurídica a los medios de comunicación comarcales que trabajen en euskara, y facilitando ayudas para disponer de tecnología. Necesitamos políticas que faciliten, incentiven o multipliquen la creatividad.

c.- Inversión pública en ámbitos de producción y consumo: Se promoverán escuelas de audiovisuales, construyendo salas de producción públicas, asegurando transferencias en materia tecnológica e impulsando la producción por Internet.



1.8.- Udal ordenantzen bidetik udal-erriak euskalduntzeko planak abiatu

Udal ordenantzen bidea garrantzi handikoa da euskara ofiziala ez den lurraldeetan ere normalizazioaren bidetik aurrerapausoak emateko. Udal autonomiak aukera handiak eskaintzen ditu arlo desberdinetan politika propioak abian jartzeko.

a.- Udal ordenantzen bidetik normalizazioranzko pauso eraginkorrek emango dira.

1.9.- Euskaraz sortuak edo euskal kulturaren parte diren produktuen aldeko marketing kanpaina

Euskalgintzak egiten duen lanaren berri izatea da, dudarik gabe, hori babesteko modurik eraginkorrena. Behar-beharrezkoa da produktuen aldeko kanpaina instituzionalak abiatzea era iraunkorrean bide horretatik babesteaz aparte bideragarritasuna ere handitzen delako.

a.- Euskaraz egiten diren eta euskal kulturakoak diren produktuen aldeko marketing kanpainak egitea.

1.8.- Puesta en marcha de planes de euskaldunización municipales por medio de ordenanzas

La vía de las ordenanzas municipales es de vital importancia para avanzar por el camino de la normalización, en los territorios en los que el euskara no es oficial. La autonomía municipal brinda importantes oportunidades para poner en marcha políticas propias en distintos ámbitos.

a.- Se darán pasos eficaces hacia la normalización por vía de las ordenanzas municipales.

1.9.- Campaña en favor de los productos creados en euskara o que sean parte de la producción cultural vasca

La manera más eficaz de proteger el trabajo del mundo del euskara, sin duda alguna, es promover su conocimiento. Es del todo punto necesario llevar a cabo campañas institucionales en favor de los productos de manera permanente ya que así, además de protegerlos, se incrementa su viabilidad.

a.- Realizar campañas de marketing a favor de los productos que se realizan en euskara y de los productos culturales vascos.

Euskararen normalizazioarekin erlazionatutako produktuez ari gara neurri honetan.

1.10.- Diru laguntza politika maila guztietan (Erkidegoetan, Aldundietan eta Toki administrazioan) aztertu eta diru baliabideak handitu

Gure hizkuntzaren normalizazioak gaur egun erabiltzen dituen baliabideak baino askoz ere gehiago behar ditu.

a.- Diru baliabideak nabarmen handitzea.

b.- Dirulaguntzak urteko lehen hiruhilekoan ezagutu ahal izatea eta garaiz ordaintzea.

1.11.- Diru laguntzazko lerro bereziak ireki proiektu berriei atxikirik

Gauza ezaguna da normalizazioaren bidean interesgarriak liratekeen proiektu ugari arazoak aurkitzen dituztela garatzeko diru baliabideak eskuratzea zaila delako. Beste batzuk ordea, abiatu badira ere, oso maila apalean ari dira garatzen, ez baitute diru

Se trata de productos relacionados con la normalización del euskara.

1.10.- Revisar la política de subvenciones a todos los niveles (Autonomías, Diputaciones y Administraciones Locales) e incrementar los recursos económicos

La normalización de nuestro idioma requiere recursos muy superiores a los que dispone en la actualidad.

a.- Notable incremento de los recursos económicos.

b.- Dar a conocer las subvenciones en el primer trimestre del año y hacerlas efectivas a tiempo.

1.11.- Habilitar líneas de subvención en relación con nuevos proyectos

Es sabido que muchos proyectos que serían interesantes para la normalización lingüística encuentran dificultades para su desarrollo ya que resulta difícil disponer de recursos económicos. Otros, en cambio, ya iniciados, se mantienen a niveles muy

iturririk aurkitzen.

a.- Gaur egun, hizkuntzaren normalizazioaren bidean diru baliabide eskasiarengatik abiatzeko aukerarik aurkitzen ez duten proiektuei begira diru laguntza lerro bereziak sortzea.

1.12.- Azpiegitura publikoak sortu euskararen eta euskal kulturaren ezartze eta garatze kostuak murrizteko

Askotan normalizazioaren bidean sortzen diren proiektuek aurkitzen duten zailtasunik handiena azpiegiturarekin erlazionatutakoa da. Komenigarria da azpiegitura publikoak sortzea, erabilpen anitzekoak, proiektu berriek non kokatu eta nola garatu izan dezaten.

a.- Erabilpen anitzeko egitura publikoak sortzea normalizazio proiektuak garatzeko. Adibide gisa, Martín Ugalde kultur parkeak balio dezake erreferentzia interesgarria baita.

deficientes por no encontrar fuentes de financiación.

a.- Crear líneas de subvención específicas para los proyectos del proceso de normalización lingüística que en la actualidad no tienen oportunidad de ser puestos en práctica por insuficiencia de recursos.

1.12.- Crear infraestructuras públicas para disminuir los costes de implantación y desarrollo de la lengua y la cultura vascas

A menudo, en el camino de la normalización, la mayor dificultad que encuentran los proyectos suele radicar en las infraestructuras. Es conveniente crear infraestructuras públicas, de uso polivalente, para que los nuevos proyectos tengan lugares y posibilidades de desarrollo.

a.- Crear estructuras públicas de uso polivalente para el desarrollo de proyectos normalizadores. Por ejemplo, el parque cultural Martín Ugalde puede ser una referencia interesante.



1.13.- Gizarte eragile eta politikoen euskalduntzea

Instituzioek, alderdi politikoek eta gizarte eragileek adibide egokia eskaini behar diote gizarteari eta erakutsi, normalizazio planen bitartez gure hizkuntzari etorkizuna ematea egingarria dela.

a.- Normalizazio planak abiatzea nork bere erakundeetan.

1.13.- Euskaldunización de los agentes sociales y políticos

Las instituciones, partidos políticos y agentes sociales deben dar ejemplo a la sociedad y demostrar por medio de planes de normalización es posible asegurar el futuro de nuestra lengua.

a.- Puesta en marcha de planes de normalización en el seno de cada organismo.

2.- Euskalgintza babesteko neurriak

2.1.- Erasoek eragindako kalteak arintzeko neurriak

Handiak dira oso erasoek sortutako kalte materialak. Batzuk zuzen-zuzenekoak: kontu korronteen bahiketak, proiektuen itxierak... eta beste batzuk zeharkakoak: bezeroak eta publizitate jartzaileak eskuratzeko zailtasunak, kontratuak galtzea, irudiaren gaineko kalteak etab. Kalteak arintzeko bideak artikulatu behar dira eragina ahalik eta txikiena izan dadin.

a.- Diru inbertsioak egiteko laguntzak interes tipo baxukoak izatea, itzuli behar ez diren laguntza ekonomikoak ematea eta abantaila fiskalak eskaintzea. Zeregin hori, dudarik gabe, instituzioei dagokie.

2.2.- Babes ekintzetarako bitarteko ekonomikoak

Erasoen helburuetariko bat herritarrengan egiten den lanaren inguruan zalantzak sortzea da urteetan irabazitako izen ona deseginez herritarrak normalizaziotik aldentzeko.

2.- Medidas para proteger el mundo del euskara

2.1.- Medidas para paliar los perjuicios causados por las agresiones

Los perjuicios materiales causados por las agresiones son ingentes. Algunos son muy directos: embargos de cuentas corrientes, cierre de proyectos, etc.; otros indirectos: dificultades para conseguir clientes y publicidad, pérdida de contratos, daños a la imagen, etc. Hay que articular medidas para paliar los daños con el objetivo de que su incidencia sea la menor posible.

a.- Ofrecer ayudas a la inversión con interés de tipo bajo, ayudas económicas a fondo perdido o ventajas fiscales. Esta función, sin duda, corresponde a las instituciones.

2.2.- Recursos económicos para acciones de defensa

Uno de los objetivos de las agresiones es crear dudas en torno a la actividad que se realiza, desprestigiando el buen nombre adquirido con años de trabajo para alejar a la ciudadanía del proceso de normalización.

a.- Bitarteko ekonomikoak bideratu behar dira hizkuntzaren normalizazioarekiko herritarren atxikimendua eta Euskalgintzaren ezagutza bermatzeko. Zeregin hori, dudarik gabe, instituzioei dagokie.

b.- Ekintza Plan baten bitartez egituratu behar da lana, eta plan hori iraunkorra izango da.

2.3.- Gorabehera politikoetatik babesteko eta etorkizunean Euskalgintzaren lana zaintzeko

Euskalgintzaren lana atera egin behar da gorabehera politikoaren zurrumbilotik eta baldintza egokitan burutu Euskal Herri osoan. Hori dela eta, kontuan harturik normalizazio prozesua denboran zehar luzatzen dela hainbat belaunaldi inplikaturik, garrantzitsua da baldintza egokiak eta homogeneoak ziurtatzea prozesuak gorabehera handirik izan ez dezan.

a.- Habilitar recursos económicos para la normalización del idioma a fin de promover el conocimiento de los organismos sociales del euskara por parte de la ciudadanía y su adhesión a ellos. Esta función, sin duda, corresponde a las instituciones.

b.- Estructurar la actividad por medio de un Plan de Acción, plan que deberá ser de carácter continuo.

2.3.- Para proteger de los avatares políticos y asegurar el trabajo de los organismos sociales del euskara en el futuro

Es preciso alejar el trabajo de los organismos sociales del euskara de los avatares políticos, para que se pueda desarrollar en condiciones adecuadas en toda Euskal Herria. Por ello, y teniendo en cuenta que el proceso de normalización se prolonga en el tiempo por espacio de varias generaciones, es importante asegurar condiciones adecuadas y homogéneas para que no sufra oscilaciones.

2.4.- Euskal instituzioen, alderdi politikoen eta gizarte eragileen eskutik Euskalgintzaren egoera nazioartera zabaltzeko plangintza

Babes neurrien artean garrantzi handikoa da hemen gertatzen ari denaren berri nazioartean ezagutaraztea benetan laguntzen baitigu.

a.- Gizarte eragiletako arduradunekin, instituzionalekin, politikoekin eta Euskalgintzako ordezkariekin lantalde bat sortzea gertatzen ari denaren berri nazioartean emateko.

2.5.- Onura publikoko aitortza eskatzen duten elkarteei izendapena lehenbailehen ematea

a.- Eskariak aztertzea eta dagokien bidea arintzea.

2.6.- Euskalgintzaren aintzatespen publikoa instituzio, alderdi eta gizarte eragileen aldetik

Beste sektore batzuekin egiten den bezalaxe Euskalgintzaren lana ere aintzatetsi beharra dago. Haren jardunak herri honentzat

2.4.- Elaborar un plan para difundir en el ámbito internacional la situación del mundo del euskara de la mano de las instituciones, los partidos políticos y agentes sociales vascos

Entre las medidas de protección resulta de gran importancia dar a conocer cuanto sucede aquí en el ámbito internacional, ya que se traduce en ayuda efectiva.

a.- Crear un grupo de trabajo con los responsables de los agentes sociales, institucionales, políticos y miembros del mundo del euskara, para dar a conocer en el ámbito internacional cuanto acontece.

2.5.- Rápida concesión del reconocimiento del carácter de interés público a las entidades que lo soliciten

a.- Examinar las solicitudes y facilitar la tramitación correspondiente.

2.6.- Reconocimiento público del mundo del euskara de parte de las instituciones, partidos y agentes sociales

Al igual que con otros sectores, es preciso reconocer el trabajo que realiza el mundo del euskara. Hay que proclamar que su



aberastasun ekonomiko eta soziala dakarrela aitortu behar da. Eragileek konfiantza izan behar dute Euskalgintzaren jardunean eta hori landu eta irudikatu egin behar da.

a.- Euskalgintzaren bilgunea den Kontseiluarekiko harremanak estutzea Euskalgintzaren aintzatespena irudikatzeko.

2.7.- Euskal Kulturaren industriaren azterketa ekonomikoa

Zenbaitetan gutxietsi egiten da Euskalgintzaren lana, askotan ez da ezagutzen eta beste batzuetan bazterrekoa den irudipena dago. Komenigarria litzateke, beste sektore batzuekin egiten den bezalaxe, Euskalgintzaren pisu soziala eta ekonomikoa zenbakietara ekartzea zein den gure ekarpena herritarrek ezagutu dezaten.

a.- Aritu batzorde bat osatzea, baliabideak dituen, Euskalgintzaren pisu ekonomiko eta soziala aztertzeko. Lana argitaratu eta herritarrei horren berri ematea.

actividad significa riqueza económica y social para este pueblo. Los agentes tienen que expresar confianza en la labor del mundo del euskara, fomentándolo y visualizándolo.

a.- Estrechar lazos con Kontseilua en cuanto foro del mundo del euskara.

2.7.- Estudio económico de la industria cultural vasca

A menudo se infravalora el trabajo del mundo del euskara, frecuentemente se ignora y otras veces se mantiene la creencia de que se trata de algo marginal. Sería conveniente, al igual que con otros sectores, cuantificar el peso social y económico del mundo del euskara para que los ciudadanos y ciudadanas conozcan nuestra aportación.

a.- Creación de un grupo de expertos, con recursos, para examinar el peso económico y social del mundo del euskara. Publicar el estudio y ponerlo en conocimiento de la ciudadanía.



2.8.- Nazioarteko batzorde ikuskatzaile bat sortzea kalteak neurtzeko eta beharrezko balorazioak egiteko

Orain arteko erasoek egindako kalteak zenbatzearen lana garrantzi handikoa da. Izan ere, zenbateko kaltea den jakitea lagungarria izaten da geroko laguntzak zehazteari edo gertatu direnak saihesteari begira.

a.- Nazioarteko batzorde bat sortuko da kulturaren, zuzenbidearen eta ekonomian adituak diren pertsonen osatua. Horien zeregina kalteak neurtzea eta beharrezko balorazioak egitea izango da. Diru baliabideak izango dituzte beren lana burutu ahal izateko eta horren emaitza publiko egingo da.

2.8.- Creación de una comisión supervisora internacional para cuantificar los daños y hacer las valoraciones pertinentes

Es de gran importancia la tarea de cuantificar los daños causados por las agresiones sufridas al mundo del euskara hasta el presente. Conocer la dimensión del perjuicio contribuirá a cuantificar y calcular las ayudas futuras o a evitar las que han tenido lugar.

a.- Crear una comisión internacional compuesta por personas expertas en cultura, derecho y economía. Su cometido será el de cuantificar los daños y hacer las valoraciones pertinentes. Contará con recursos para llevar a cabo su cometido y su resultado se hará público.

3.- Xedapen gehigarriak

3.1.- Akordioa betetzeari dagokionez, esan behar da betetzen hasteko denboran zehar, epe eta helburu zehatzak izango dituen plangintza ezarriko dela, egoera bakoitza kontuan hartuz. Plangintza horren helburuak eta epe zehatzak behar bestekoak izango dira euskararen normalizazio prozesua gidatzeko.

3.2.- Akordio honen sinatzaileon borondatea Euskal Herriko alderdi eta sindikatu guztiek sinatzea da, beraz, orain bezala, etorkizunean ere, akordio hau guztiz irekita egongo da indar berriak onartzeko.

3.3.- Akordioa betetzea aztertzeke sinatzaile guztien artean batzorde bat eratuko da. Horren zeregin nagusia izango da hartutako akordioak betetzean sor litezkeen arazoei irtenbideak ematea, eta etengabeko azterketa egitea.

3.- Disposiciones adicionales

3.1.- En lo concerniente a la implementación del acuerdo se creará una planificación que tendrá planes y objetivos concretos adecuados a cada situación. Los objetivos y plazos de esa planificación serán los suficientes para guiar el proceso de normalización del euskara.

3.2.- La voluntad de los firmantes de este acuerdo es la de que todos los partidos políticos y sindicatos de Euskal Herria lo firmen. Por lo tanto, ahora y en el futuro estará totalmente abierto a nuevas incorporaciones.

3.3.- Se creará una comisión entre todos los firmantes para analizar el cumplimiento del acuerdo. La principal función de esta comisión será solucionar los problemas que puedan surgir y realizar un análisis permanente de su implementación.



3.4.- Akordio honek behar eta eskatzen dituen baliabide ekonomikoak ziurtatzea Euskal Herriko instituzio bakoitzari dagokio eta sinatzaileek horretarako beharrezkoak diren gestioak egingo dituzte.

3.4.- Corresponderá a las diferentes instituciones de Euskal Herria asegurar los medios económicos necesarios para la implementación de este Acuerdo y a los firmantes realizar las gestiones necesarias para su cumplimiento.

ANV-EAE
Acción Nacionalista Vasca
Eusko Abertzale Ekintza

Aralar

Batasuna

EA
Eusko Alkartasuna

EHNE
Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna

ELA
Euskal Langileen Alkartasuna

ESK
Ezker Sindikalaren Konbergentzia

Hiru
Euskal Herriko Garraiolari
Autonomoen Sindikatua

LAB
Langile Abertzaleen Batzordeak

STEE-EILAS
Euskadiko Irakaskuntzaren
Langileen Sindikatua

Zutik

Euskararen Gizarte Erakundeen
Kontseilua

Bilbon, 2004ko azaroaren 9an.